

DIRU - SARRERAK

Bezeroek gure zerbitzuengatik zenbat eta nola ordaintzeko prest dauden ulertzea funtsezkoa da negozio-ereduaren bideragarritasuna modu errealistan planifikatzeko. Horregatik, prezio-estrategia eta diru-sarrera-iturriak definitzerakoan, kontuan hartzen ditugu bezero mota bakoitzaren ezaugarriak, proiektuaren konplexutasuna eta eskaeraren intentsitatea.

Gure helburua ez da prezioak jaitea edo logika asistentzialistan erortzea, baizik eta balio erantsian eta kalitate profesionalean oinarritutako zerbitzua eskaintzea. Ikuspegi intersektzionala tresna estrategiko gisa erabiltzen dugu sektore bakoitzaren beharrak eta baliabideak ulertzeko, eta horren arabera eskaintza eta ordainketa-ereduak optimizatzeko.

Ordainketa bakarreko diru-sarrerak

Behin-behineko eta zerbitzu zehatzen truke sortzen diren diru-sarrerak dira.

Zerbitzuen eskaeraren arabera, aurrekontu pertsonalizatua egingo da, honako irizpide hauek kontuan hartuta:

Aurrez aurreko zerbitzuak

- Orduko prezioa kobratuko da.

Desplazamenduak

- Bulegotik kanpora mugitu behar denean:
 - 0,26 €/km (joan-etorriko distantzia kontuan hartuta).

Baliabide fisikoak erabiltzen badira

- Materialen kostua + baliabidea sortzeko emandako denbora.
- Materialen kostua: prezio kostua + %10 (kudeaketagatik).

Informazioaren eta testuen egokitzapenak

- Informazioaren egokitzapen puntualak: X €/ordu.
- Testuen egokitzapena: testuaren luzeraren eta egokitzapen motaren arabera kalkulatu da.

Ordainketa bakarreko beste diru-sarrerak

- Baliabide puntualak: Agenda bisualak, aholkularitza, Zeinu Hizkuntzako egokitzapenak, KSHA egokitzapenak...
- Produktu fisikoak
- Egokitzapen puntualak

Guztiak aurrekontu pertsonalizatu bidez.

Ordainketa errepikakorak.

Epe luzeko zerbitzu iraunkorak kontratatzen dituzten bezeroei zuzenduta:

- Egokitzapen jarraitua
- Online laguntza komunikatiboa
- Zerbitzu-pakete erregularrak (zentro edo erakundeentzat)

Prezioa: hileko kuota finkoa, adostutako zerbitzuen intentsitatearen eta maiztasunaren arabera.

DIRU-SARRERAK SORTZEKO MODUAK

Aktiboen salmenta

Sortutako baliabide fisikoen salmenta: piktogramak, seinaleak, kartelak...

Erabileragatiko saria

Orduka edo erabilitako baliabidearen arabera egindako kobraketa.

Harpidetzagatiko saria

Hileroko kuotetan oinarritutako zerbitzu jarraituak.

Mailegua, rentinga eta alokairua

Baliabide irisgarri edo bisual batzuk aldi baterako lagatzeko aukera (gutxi aplikagarria, baina posible).

Lizentziak

Sortutako eduki digitalen erabilera baimentzea beste erakundeentzat.

Broker edo komisio bidezko sariak

Gure kasuan ez da nagusia; baliteke beste profesional batzuekin elkarlanean komisio txikiak jasotzea.

Publizitatea

Webgune edo baliabide digitaletan publizitate txertatzea (aukera osagarria).

PREZIOEN SAILKAPENA

Prezio finkoak

- Lana orduetan oinarritzen denean.
- Zerbitzu presentzialak eta online.
- Hileroko kuotak.
- Materialen kostua: prezio kostua + %10.

Prezio dinamikoak

- Testuen egokitzapenak (luzeraren eta zailtasunaren arabera).
- Espazioen egokitzapena.
- Baliabide bisual pertsonalizatuak.
- Material fisikoak
- Egokitzapen puntualak
- Beste sarrera osagarriak

BIBLIOGRAFIA:

- García,B.-Tena, D.-Bernabeu, M^a E.- López, C. (2025). Itinerario personal para la empleabilidad. TULIBRODEFP.
- STARTINNOVA plataformako material.
- <http://blog.hubspot.es/sales/modelo-canvas>